
DATUEN BABESA HONDAKINEN UDAL KUDEAKETAN



**Datuak Babesteko
Euskal Agintaritza**
Autoridad Vasca de
Protección de Datos

Harremanetarako

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71,
3. solairua

01008 Vitoria - Gasteiz

☎ 945 016 230

avpd@avpd.eus

www.avpd.eus



oinarrizko informazioa
sei galderatan



Helburu horiek betetzeko, araudian zein tresna daude aurreikusita?

Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak helburu hori lortu nahi du, eta horretarako, bi tresna erabiltzen ditu:

1. Hondakinen kudeaketarako erabiltzailearen identifikazioa dakarten sistemak ezartzea, hala nola atez ateko bilketaren eredua edo edukiontzi itxiena.
2. Bidezko tasak aplikatzea hondakinetarako, sistema finantzatu ahal izateko.



Zein da hondakinen araudiaren helburua?

Hondakinen kudeaketa toki-entitateek nahitaez eman behar duten zerbitzua da. Europar Batasunaren ingurumen-politikaren arabera, Batasuneko estatu kideek sustatzen duten hondakin-kudeaketak ingurumena errespetatu behar du.

Xedea da hondakinen bigarren mailako erabilera lortzea, hau da, materialak berrerabiltzea eta aprobetxatzea lehengaien kontsumo handiagoa saihesteko eta ingurumenari kalterik ez egiteko.



Hondakinen kudeaketari eta tasen aplikazioari zergatik aplikatzen zaie datuen babesa?

Sistema horiek datu pertsonalak tratatzen dituzte, eta horretarako erabiltzen dituzte barra-kodeak, QR kodeak, txipak, txartelak, gakoak edo telefono mugikorrak, helbide bati lotuta.

Toki-enteeek datu pertsonalak tratatzean dituztenean, helburua da kudeatzea, baina horrez gain zaintzea, ikertzea eta, beharrezkoa izanez gero, zehatzea.

Toki-enteeek onartu behar dituzten tasen helburua, berriz, sortutako hondakinen araberako ordainketa-sistemak ezartzea da, gehiago sortzen duen horrek gehiago orain dezala. Sistema horien bidez hondakinak biltzeko, garraiatzeko eta tratatzeko eragiketen kostu erreala –zuzenekoa edo zeharkakoa– islatu beharko da. Tasa kobratzeak, ezinbestean, datuen tratamendua dakar: identifikazio-datuak, bankuko datuak, sortutako hondakin-kopuruari buruzko informazioa, edukiontzia zenbat aldiz erabiltzen den eta abar.



Nor da zer, datuen babesaren ikuspegitik?

Arduraduna. Zein datu tratatuko diren eta zertarako tratatuko diren erabakitzen duena: toki-entitatea.

Eragilea. Arduradunari zerbitzu bat ematen dio, eta zerbitzu horrek datuen tratamendua dakar: hondakinak kudeatzen dituen enpresa.

Zein legitimazio-oinarri duzu datuak tratatzeko?

Zerbitzuak funtzionatzeko eta entitateak bere eskumenak egikaritu ahal izateko beharrezkoak diren datuak tratatzeko: interes publikoa. Interes publiko hori apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta udal ordenantzetan zehazten da.

Beste helburu osagarri edo lagungarri batzuetarako: adostasuna.

Laburpen gisa: hondakinen kudeaketarako eredu bat diseinatu eta dagokion tasa onartu behar baduzu, zer hartu behar duzu kontuan?

Gauza baterako zein besterako, datu pertsonalak tratatu behar dituzu; beraz, lehen unetik bertatik oinarrizko eskubidea hartu behar duzu kontuan.

Zer dakar horrek?

- Eraginaren ebaluazioa egin behar duzun ala ez aztertzea.
- Erabiltzaileentzako informazio-klausula bat prestatzea.
- Ordenantzan datuen babesari buruzko alderdiak txertatzea.
- Zerbitzurako behar-beharrezkoak ez diren helburuetarako adostasuna eskatzea.
- Hondakinen kudeaketa egin behar duen enpresarekin datuen tratamendu-mandatua idaztea.

